**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(20.11.26)**

INGURUMENEKO HIRI ZERBITZU ETA INGURUMEN KALITATE ZERBITZUA ZINEGOTZI ARDURADUNA:
JOSEBA ARREGI jn.

AZPIEGITURA, OBRA ETA ZERBITZU ARLOKO ZINEGOTZIA:
JANIRE OCIO and.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK:

TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleakeko ordezkaria)
KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria)
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona),
JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria)
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)
CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan)
ANDEKA ZUBIAUR jn. (Eskola Agenda 21 Aixerrota Eskola).
AMAIA LAUZIRIKA and. (Getxo Enpresako batzordekidea)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute: KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria), CARLOS ARANA jn. (Sarekideko ordezkaria), eta MIGUEL ANGEL ROGGERO jn. (Itxartu Taldea).

Getxon, 2020ko azaroaren 26an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, birtualki eta aurrez aurre, Getxoko Batzar Aretoan, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**GAI ZERRENDA**

Bileraren hasieran, Eugenia Atin arestian esandako Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela aipatu du.

**1.- 2020ko martxoaren 3an egin ziren Ingurumeneko Toki Foroko bilkurei dagozkien aktak onestea.**

Aho batez onartu da.

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(26.11.20)**

CONCEJAL DE SERVICIOS URBANOS AMBIENTALES Y CALIDAD AMBIENTAL:
D. JOSEBA ARREGI

CONCEJALA DE INFRAESTRUCTURAS, OBRAS Y SERVICIOS:
Dª JANIRE OCIO

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA

CONSULTORA:
Dª EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

Dª TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak)
Dª KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar)
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak)
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)
Dª CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan)
D. ANDEKA ZUBIAUR (Agenda Escolar 21 Aixerrota)
Dª AMAIA LAUZIRIKA (Vocal de Getxo Enpresa)

Excusan su no asistencia: D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarias Vasca), D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide) y D. MIGUEL ANGEL ROGGERO (Itxartu Taldea).

A 26 de noviembre de 2020 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, de manera virtual y en presencial en la Sala de Comisiones en Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

**1.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 3 de marzo de 2020.**

Se aprueba el acta por unanimidad.

**2.- 2020-2023 bitarteko ekintza-planaren onespena Ingurumeneko Toki Foroaren aldetik**

Eugenia Atinek 2020-2023 Ekintza Planaren aurrekariak gogorarazi dizkie Foroko kideei. Pandemiaren aurretik egindako bileretan, plan berri bat diseinatzeko lanetan aritu zen Foroa. Horretarako, jarduketa berrien zirriborroak egin ziren, bai eta oraindik ere garrantzitsuak eta egungoak diren aurreko aldiko (2016-2019) ekintzei jarraipena eman ere.

Udaleko teknikariekin kontrastatu dira Foroak pandemiaren aurretik proposatutako ekintzak eta jarduerak, eta Foroko kideei aztertzeko bidali zaizkien bi dokumentuetan, laburpen-dokumentu batean eta dokumentu zehatzago batean jaso dira. Azken dokumentu horretan, ekintza bakoitzaren baitan egin beharreko jarduerak zehaztu dira.

Ekintza Plana dagoeneko ez da Tokiko Agenda 21, Tokiko Agenda 2030 deitzen da orain. Garapen Jasangarrirako Helburuek Tokiko Agenda 21en konpromisoak mantendu dituzte zati batean, beraz, Tokiko Agenda 2030 garatuz jarraipena emango zaio Getxok duela hamasei urtetik hona ezarri duen Tokiko Agenda 21 ekimenari.

Gaurko bileraren helburua da Tokiko Agenda 2030en Ekintza Plana (2020-2023) onestea, hartara, Gobernu Batzarrak ere onetsi dezan.

Eugenia Atinek urrutitik konektatutako pertsonekin partekatu du zehaztasunen agiria, pantailaren bidez, Agiri horretan ildo estrategikoak, programak eta ekintzak barne hartu dira. Ekintza bakoitzeko fitxa bat dago, honako alderdi hauek jasotzen dituena: deskribapena, garapen jasangarrirako zer helbururi mesede egiten dion, adierazleak, lehentasuna, egikaritzeko epea, aurrekontua (kasu batzuetan), ekintzaren arduradunak, inplikatutako eragileak eta ekintza zer jarduketetan xehatu daitekeen. Horiek planaren ebaluazioan berrikusiko dira urtero.

Jarraian, ildo estrategiko, programa eta ekintza guztiak berrikusi dira, bertaratuak ados ote dauden egiaztatzeko.

**1. IE: UDALAREN KUDEAKETA JASANGARRITASUN-IRIZPIDEEKIN**

1.1. programa Udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak integratzea.

1.1.1. E: Mekanismoak ezartzea udala jasangarritasun erreferentea izan dadin.

1.1.2. E: Udaleko erosketa eta kontratazioko prozesuetan irizpide jasangarriak sartzeko bidean aurrera egitea.

1.1.3. E: Udaleko langileen baliabide-erabilera murriztea.

1.1.4. E: Udaleko langileak ingurumeneko eta/edo jasangarritasuneko alorrean sentsibilizatzea, gaitzea eta trebatzea.

1.1.5. E: Ingurumen foroekin jarraitzea.

Lehenengo ildo estrategikoaren errepasoa amaituta, Eugenia Atinek galdetu du ea ados dauden, eta bertaratuek ados daudela adierazi dute.

**2.- Aprobación del Plan de Acción 2020-2023 por parte del Foro de Medio Ambiente.**

Eugenia Atin recuerda a los miembros del Foro los antecedentes del Plan de Acción 2020-2023. En las reuniones anteriores a la pandemia el Foro estuvo trabajando en el diseño del nuevo plan, esbozando nuevas actuaciones y dando continuidad a las acciones del periodo anterior 2016-2019 que seguían siendo relevantes y de actualidad.

Las acciones y actuaciones propuestas por el Foro antes de la pandemia han sido contrastadas con el personal técnico del Ayuntamiento y recogidas en los dos documentos que se han enviado a los miembros del Foro para su análisis, un documento resumen y un documento más detallado donde se perfilan las actuaciones dentro de cada acción.

El Plan de Acción ya no es el de Agenda Local 21, sino que ha pasado a denominarse Agenda 2030 Local. Los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) en parte heredan los compromisos de la Agenda 21 Local por lo que el desarrollo de esta Agenda 2030 Local será la continuación de la Agenda 21 Local que Getxo lleva implementando en el municipio desde hace 16 años.

El objetivo de la reunión de hoy es aprobar el Plan de Acción de Agenda 2030 Local (2020-2023) para que la Junta de Gobierno pueda aprobarlo a su vez.

Eugenia Atin comparte en pantalla con las personas conectadas en remoto, el documento detallado que consta de líneas estratégicas, programas y acciones. Para cada una de las acciones hay una ficha que consta de descripción, objetivo de desarrollo sostenible al que contribuye, indicadores, prioridad, plazo de ejecución, presupuesto en algunos casos, responsabilidad de la acción, agentes implicados así como las actuaciones en las que puede desglosarse la acción y que se revisarán anualmente en la evaluación del Plan.

A continuación se van revisando todas las líneas estratégicas, programas y acciones para comprobar la conformidad de todas las personas presentes.

**LE 1: GESTIÓN MUNICIPAL CON CRITERIOS DE SOSTENIBILIDAD**

Programa 1.1. Incorporar criterios de sostenibilidad en la gestión municipal.

A 1.1.1. Establecer mecanismos para que el Ayuntamiento sea referente en sostenibilidad.

A 1.1.2. Avanzar en la incorporación de criterios sostenibles en los procesos de compra y contratación municipal.

A 1.1.3. Reducir el uso de recursos por parte del personal municipal

A 1.1.4. Sensibilizar, capacitar y formar al personal municipal en materia ambiental y/o sostenibilidad.

A 1.1.5 Dar continuidad a los foros medioambientales

Finalizado el repaso de la primera línea estratégica, Eugenia Atin pregunta por la conformidad y los presentes dan su aprobación.

**2. IE: INGURUMEN-KALITATEAREN ARLOAN INFORMAZIOA ESKURATZEA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA**

2.1. programa: Ingurumen kalitateko informazioa herritarrentzako eskuragarri jartzea.
2.1.1. E: Pertsonen esku jarritako informazioa hobetzea, irisgarriago eta errazago bihurtuz.
2.2. programa: Udal eragileen eta herritarren parte hartze aktiboa.
2.2.1. E: Parte hartzeko mekanismoak finkatzea udaleko politikaren funtsezko alderdi guztietan.
2.2.2. E: Udaleko langileei eta herritarrei parte-hartzeari buruzko prestakuntza ematea.
2.3. programa: Jasangarritasun alorreko sentsibilizazioa.
2.3.1. E: Eskola Agenda 2030 programari jarraipena ematea.
2.3.2. E: Ikastetxeek txango ekologikoak egitea korridore ekologikora / behatokietara.
2.3.3. E: Ingurumen gelarekin eta jarduerekin jarraitzea.
2.3.4. E: Ingurumenari buruzko informazioa hedatzea.
2.3.5. E: Aste berdea sustatzen jarraitzea

**LE 2: ACCESO A LA INFORMACIÓN DE CALIDAD AMBIENTAL Y ACTIVAR LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA**

Programa 2.1.: Información de calidad ambiental al alcance de la ciudadanía
A 2.1.1. Mejorar, haciendo más accesible y sencilla, la información puesta a disposición de las personas
Programa 2.2.: Participación activa de la ciudadanía y agentes municipales
A 2.2.1. Establecer mecanismos de participación en todos los aspectos clave de la política municipal
A 2.2.2. Formar al personal del Ayuntamiento y a la ciudadanía en participación
Programa 2.3.: Sensibilización en materia de sostenibilidad
A 2.3.1. Continuar con el programa Agenda 21 Escolar.
A 2.3.2. Salidas ecológicas de los centros escolares al corredor ecológico/ observatorios.
A 2.3.3. Dar continuidad al Aula Medioambiental y sus actividades
A 2.3.4. Difusión de información sobre medio ambiente
A 2.3.5. Seguir impulsando Aste berdea

Karmele Urquijoren ustez jasangarritasun alorreko sentsibilizazioari lotutako ekintzetan pertsona helduak ere barne hartu beharko lirateke, ez soilik gazteak. Helburua ez da kanpaina espezifikoak egitea, baizik eta jende nagusiaren interesekoak izan daitezkeen ekintza hurbilagoak egitea. Espezifikotasun hori A2.3.4. ekintzan jarduketa modura sartzea adostu da.

Karmele Urquijo opina que las acciones relacionadas con la sensibilización en materia de sostenibilidad deberían incluir también a las personas de cierta edad, no solo a las personas jóvenes. No se trata de realizar campañas específicas sino de acciones más cercanas que interesen a la gente más mayor. Se acuerda que esta especificidad podría incluirse en la acción A2.3.4. como actuación.

A2.3.1. ekintzari dagokionez, Andeka Zubiaurrek adierazi du Eskola Agenda 21en izena ere aldatu egin dela, hortaz, plan honetan ere islatu beharko litzateke. Zuzenketa kontuan hartu da eta ekintzaren izenburua aldatu da: “A 2.3.1. Eskola Agenda 2030 programari jarraipena ematea”.

Con respecto a la acción A2.3.1. Andeka Zubiaur señala que la Agenda 21 Escolar también ha cambiado de nombre y que por lo tanto se debería reflejar también en este Plan. Se toma nota de la corrección y se cambia el título de la acción “A 2.3.1. Continuar con el programa Agenda 2030 Escolar”.

Bi iruzkin horiekin onetsitzat eman da 2. ildo estrategikoa.

Con estos dos comentarios, se da por aprobada la línea estratégica 2.

**3. IE: HIRIGINTZA JASANGARRIAN AURRERA EGITEA**

3.1. programa: Hirigintza garapen jasangarria sustatzea.
3.1.1. E: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra jasangarritasun irizpideekin onestea.
3.1.2. E: Herritarrentzako espazio berriak sortzea edo horien erabilera optimizatzea.
3.2. programa: Etxebizitzara sarbidea eta egoitza kalitatea.
3.2.1. E: Alokairu eskuragarria sustatzea, bereziki gazteentzat.
3.2.2. E: Udal-jabetzako hiri-lurzoruan babestutako etxebizitzak sustatzea eta eraikitzea.
3.2.3. E: Etxebizitza kolaboratiboaren eredu berriak ezartzea.
3.2.4. E: Etxebizitza hutsen erabilera sustatzea.
3.2.5. E: Etxebizitzen eraberritzea eta hiri birsorkuntza bultzatzea.
3.3. programa: Berdeguneak hobetu eta garatzeko programa.
3.3.1. E: Lorezaintza naturalagoa eta ekologikoagoa ezartzea.
3.3.2. E: Plazetan berdeguneak, lorategiak eta zuhaitzak zabaltzea.
3.3.3. E: Parkeetan erakargarritasunak sortzea udalerriko balio naturalak nabarmentzeko.

**LE 3: AVANZAR EN EL URBANISMO SOSTENIBLE**

Programa 3.1.: Promover el desarrollo urbanístico sostenible
A 3.1.1. Aprobación del Plan General de Ordenación Urbana con criterios de sostenibilidad
A 3.1.2. Creación de nuevos espacios para la ciudadanía u optimar su uso
Programa 3.2.: Acceso a la vivienda y calidad residencial.
A 3.2.1. Fomentar un alquiler asequible, especialmente para jóvenes
A 3.2.2. Promoción y construcción de viviendas protegidas en los suelos urbanos de propiedad municipal
A 3.2.3. Implantar nuevos modelos de vivienda colaborativa
A 3.2.4. Promover la utilización de la vivienda vacía
A 3.2.5. Impulsar la rehabilitación de viviendas y regeneración urbana
Programa 3.3.: Programa de desarrollo y mejora de zonas verdes.
A 3.3.1. Implantación de un modelo de jardinería más natural y ecológica
A 3.3.2. Ampliar las zonas verdes, jardines y árboles en las plazas

3.3.4. E: Parkeak eta bertako altzariak mantentzea.
3.3.5. E: Etxeko animalientzako espazio egokiak erraztea.
3.4. programa: Mugikortasun iraunkorra bultzatzea.
3.4.1. E: Bidegorrien sarea handitzea eta hobetzea.
3.4.2. E: Norbere mugikortasunerako ibilgailuen erabilera erraztea eta arautzea.
3.4.3. E: Patinete elektrikoak alokatzeko sistema ezartzea.
3.4.4. E: Udalerriko trafikoa hobetzea.
3.4.5. E: Eskola-bideak sustatzea, segurtasuna hobetuz.
3.4.6. E: Bizikleta pribatuentzako aparkalekuen sistema eta bizikleten alokairu publikoko sistema sustatzea (Getxobizi).
3.4.7. E: Aparkalekuen kudeaketa eta garapena hobetzea.
3.5. programa: Irisgarritasun jasangarri unibertsalean aurrera egitea.
3.5.1. E: Oinezkoei lehentasuna emateko hirigintza berrurbanizazioa.
3.5.2. E: Administrazio eta merkataritza zentroen eta hondartzen konexio irisgarriak.

A 3.3.3. Crear atractivos en los parques para resaltar los valores naturales del municipio
A 3.3.4. Mantenimiento de los parques y su mobiliario
A 3.3.5. Facilitar espacios adecuados para esparcimiento de animales de compañía
Programa 3.4.: Impulsar la movilidad sostenible.
A 3.4.1. Ampliar y mejorar la red de bidegorris
A 3.4.2. Facilitar y regularizar el uso de vehículos de movilidad personal
A 3.4.3. Posibilitar la implantación de un sistema de alquiler de patinetes eléctricos
A 3.4.4. Mejorar el tráfico en el municipio
A 3.4.5. Impulsar los caminos escolares mejorando la seguridad
A 3.4.6. Potenciar el sistema público de alquiler de bicicleta y de aparcamientos para las bicis privadas (Getxobizi)
A 3.4.7. Mejorar la gestión y el desarrollo de aparcamientos
Programa 3.5.: Avanzar hacia la accesibilidad universal sostenible
A 3.5.1. Reurbanización urbana para dar prioridad al peatón
A 3.5.2. Conexiones accesibles a centros administrativos, comerciales y playas

A 3.1.2 ekintzaren izenburua ez da zuzena eta zuzendu egin beharko litzateke: “A3.1.2. Herritarrentzako espazio berriak sortzea eta daudenen erabilera optimizatzea”.

El título de la acción A 3.1.2. no es correcto y se debería corregir a “A3.1.2. Crear nuevos espacios para la ciudadanía y optimizar el uso de los existentes”.

Karmele Urquijok espazio berri horien inguruan galdetu du, zaila iruditzen baitzaio Getxon espazio horiek aurkitzea. Joseba Arregik, esaterako, Iturribarriko zona berri osoa aipatu du. Beste pertsona batek Manuel Gainza parke berria aipatu du.

Karmele Urquijo pregunta por estos nuevos espacios ya que le parece complicado encontrarlos en Getxo. Joseba Arregi señala por ejemplo toda la zona nueva de Iturribarri. Otra persona apunta también al nuevo parque de Manuel Gainza.

Irisgarritasun unibertsalari buruzko 3.5. programari dagokionez, Karmele Urquijok esan du gurpildun aulkietan ibiltzen diren pertsonentzat espaloietako irtenguneak oso malkartsuak direla toki batzuetan, eta horrek aulkien erabilera zailtzen duela. Ildo horretatik, espaloi guztietako beheratzeak egiaztatzeko gomendatu du. 3.5.2. ekintzaren jarduketa bat honako hau dela adierazi da: “espaloi guztiak irisgarri egitea”. Joseba Arregik azaldu du beheratze modernoak zaharrak baino irisgarriagoak direla, eta egokitu beharreko beheratzeen zerrenda bat egitera animatu ditu bertaratuak, jasota gera daitezen. Josu Atekak Foroko kideei gogorarazi die webguneko Abisuak, Kexak eta Iradokizunak jartzeko zerbitzua (https://www.getxo.eus/es/servicios/solicitudes/incidencias-web) erabil dezaketela gauza horietarako. Horrez gain, irisgarritasuna oso gai garrantzitsua da, hortaz, ziur dago erantzuna izango dutela.

Con respecto al programa 3.5. de accesibilidad universal, Karmele Urquijo observa que para las personas que llevan sillas de ruedas, los resaltes de las aceras son muy abruptos en algunas zonas, lo cual dificulta el manejo de las sillas. En este sentido, recomienda comprobar los rebajes de todas las aceras. Se señala que la acción 3.5.2. contempla en una de sus actuaciones “Accesibilizar todas las aceras”. Joseba Arregi explica como los rebajes más modernos son más accesibles que los antiguos y anima a hacer una lista de los rebajes concretos que hay que adecuar para que quede constancia. Josu Ateka recuerda a los miembros del Foro que se puede hacer uso del servicio de AQS (Avisos, Quejas y Sugerencias) de la web: https://www.getxo.eus/es/servicios/solicitudes/incidencias-web para este tipo de cosas. Además, la accesibilidad es un tema muy sensible por lo que seguro que hay respuesta.

Iruzkin horiek egin ostean, onetsi egin da planaren hirugarren ildo estrategikoa

Con estos comentarios se da por aprobada la tercera línea estratégica del Plan.

**4. IE: UDALERRIKO BALIO NATURALAK, BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA BABESTEA**
4.1. programa: Itsasertza babestea eta berreskuratzea.
4.1.1. E: Itsasertza kontserbatzea, berritzea eta mantentzea.
4.1.2. E: Balio geologikoak ezagutzera ematea.
4.1.3. E: Galeako txilardiak berreskuratzeko proiektuari eustea.

**LE 4: PRESERVAR LOS VALORES NATURALES, LA BIODIVERSIDAD Y EL PAISAJE DEL MUNICIPIO**
Programa 4.1.: Proteger y recuperar el litoral.
A 4.1.1. Conservación, restauración y mantenimiento de la franja del litoral
A 4.1.2. Dar a conocer los valores geológicos
A 4.1.3. Mantener el proyecto de recuperación de los brezales de la Galea

4.1.4. E: Azkorri inguruan apo lasterkaria babesteko lanekin jarraitzea.
4.2. programa: - Bolue eta ur ekosistemak babestu, hobetu eta sustatzea.
4.2.1. E: Hezegunea babesteko lanekin jarraitzea.
4.2.2. E: Bolue Bolueko haranera, korridore ekologikora eta Gobela ibaian urak har ditzakeen azpiegituretara zabaltzea.
4.2.3. E: Anfibioentzat hezeguneak gaitzea eta lehengoratzea.
4.2.4. E: Hezegunea ezagutarazten jarraitzea.
4.3. programa: Natur interesa duten eremuak berreskuratu eta babestea.
4.3.1. E: Flora eta faunaren inbentarioak.
4.3.2. E: Eremu naturalen inbentarioa.
4.3.3. E: Herritarrentzako informazio eta prestakuntza kanpainak, inguru naturalari eta hura mantentzeari buruz.
4.3.4. E: Landare inbaditzaileak, esate baterako panpa-lezkak eta espartinak.
4.3.5. E: Azpiegitura berdeak sustatzea.
4.3.6. E: Bidexka sarea sortzea.

A 4.1.4. Continuar con las labores de protección del sapo corredor en la zona de Azkorri
Programa 4.2.: Protección, mejora y promoción de Bolue y de los ecosistemas acuáticos.
A 4.2.1. Continuar con las labores de protección del humedal
A 4.2.2. Extender Bolue al Valle de Bolue, corredor ecológico e infraestructuras inundables del Gobela.
A 4.2.3. Habilitación y recuperación de zonas húmedas para los anfibios
A 4.2.4. Continuar dando a conocer el Humedal
Programa 4.3.: Protección y recuperación de zonas de interés naturalístico.
A 4.3.1. Inventarios de flora y fauna
A 4.3.2. Inventario de zonas naturalísticas
A 4.3.3. Campañas de información y formación de la población sobre el entorno natural y su mantenimiento
A 4.3.4. Control de las plantas invasoras como las cortaderias y las espartinas.
A 4.3.5. Impulsar las infraestructuras verdes
A 4.3.6. Crear una red de senderos

Xabier Buenetxeak esan du 4.1.3. ekintzak ez lituzkeela txilardiak soilik hartu beharko; hala, ekintzaren irismena zabaldu beharko litzatekeela uste du. Hain zuzen ere, ekintza horren baitako jarduketek kostaldeko txilardien zedarriztapena handitzea aurreikusten dute, baina izenburuak ez du hori ondo islatzen. Horrenbestez, izenburua aldatzea gomendatu da, egikaritze-bidean den eta urtero handitu egiten den berreskurapen-proiektu bat dela islatu dadin. Izenburua zuzendu da: “A4.1.3 Galeako txilardiak berreskuratzeko proiektua garatzea”.

Xabier Buenetxea indica que la acción 4.1.3 no solo debería mantener la zona de los brezales sino que debería ampliarla. Efectivamente, las actuaciones dentro de esta acción contemplan la ampliación de la delimitación de los brezales costeros, sin embargo el título de la acción no lo refleja bien. Se recomienda por tanto cambiar el título para que quede constancia de que se trata de un proyecto de recuperación que se está ejecutando y que crece cada año. Se corrige el título a: “A4.1.3. Desarrollo del proyecto de recuperación de los brezales de la Galea.”

Txaro Arceniegak jakin nahi du ea Galeako pinudietan prozesionaria dagoen. Xabier Buenetxeak ezetz erantzun du. Beste zomorro mota bat dago, zutoinei eraso egiten diena, orban zuriak uzten dituena eta prozesionaria baino oldarkorragoa dena. Pinudi horiek tratatu egin behar dira, eta jarduketarik egokiena honako hau izango litzateke: pinudi horiek pixkanaka bertako zuhaitzekin ordezkatzea, berreskurapen-prozesua hasteko. Hala ere, Josu Atekak egiaztatu du pinudiak zona pribatu batean daudela, beraz, ezin dute gauza handirik egin.
Javier Loidik adierazi du prozesionariak ez dakarrela arazo larririk pertsonentzako. Hala ere, Amaia Lauziricak azaldu du etxeko animalientzako arazoa izan daitekeela, animalia askok beldarrak usaintzen eta jaten dituztelako eta hiltzeko arriskua dutelako. Txakur askori mihia moztu behar izan diete horregatik.

Txaro Arceniega se interesa por saber si en los pinares de la Galea hay procesionaria. Xabier Buenetxea responde que no, que hay otro tipo de bicho que ataca a los troncos, deja manchas blancas y es más agresivo que la procesionaria. Estos pinares tienen que ser tratados y lo ideal sería que progresivamente fueran sustituidos por autóctono para iniciar la recuperación. Sin embargo, Josu Ateka constata que los pinares están en zona privada por lo que no hay margen de maniobra.

Javier Loidi señala que la procesionaria no es un problema grave para las personas, sin embargo Amaia Lauzirica explica que sí que lo es para las mascotas ya que muchas olisquean o comen las orugas y hay riesgo de muerte. Han tenido que amputar la lengua a muchos perros por esta razón.

Bestalde, Xabier Buenetxeak jasota utzi nahi izan du Bolueko harana bezalako naturguneek jasaten duten higadura oso handia dela. Konfinamenduaren ostean eta orain, ostalaritza itxi egin denean, jendea maizago irteten da naturguneetara, gehiago joaten da ibiltzera, txango gehiago egiten ditu, piknikak egiten ditu… Ez dakigu horrek zer eragin izango duen epe luzera floran eta faunan.

Por otro lado, Xabier Buenetxea quiere dejar constancia de la erosión tan grande a la que estamos sometiendo los espacios naturales como el valle de Bolue. La gente, después del confinamiento y ahora con el cierre de la hostelería, sale más a la naturaleza, anda más, hace excursiones, picnics… No sabemos cómo va a afectar esto a largo plazo a la flora y fauna.

Javier Loidi ados agertu da, eta bidezidorrek lehen baino presio handiagoa jasaten dutela esan du. Horrez gain, bidezidorretatik bizikletak erabiltzea araututa egon beharko litzateke, oinezkoekin gatazkak izan ditzaketelako. Amaia Lauziricak adierazi du Artxandan, adibidez, bizikletentzako seinaleztapen espezifikoa dagoela, eta antzeko zerbait egin dezakegula. Javier Loidi ados

Javier Loidi coincide en que los senderos están sometidos a una presión mayor. Además, el uso de las bicicletas en los senderos debería estar regulado por el conflicto con los peatones. Amaia Lauzirica indica que por ejemplo en Artxanda existe una señalización específica para bicis y que podríamos hacer algo similar. Javier Loidi está de acuerdo con incorporar nueva

dago seinaleztapen berria jartzearekin. Horrez gain, sareak ere kontuan izan behar ditugu, baita ondoko udalerriekin lankidetzan aritzeko aukera ere. Zaldiak ere ibiltzen dira bidezidorretatik, beraz, geroz eta beharrezkoa da horien erabilera arautzea. Xabier Buenetxea ados dago oinezkoei lehentasuna emango dien erregulazioarekin eta seinaleztapen egokiarekin. Juanjo Quiñonesek esan du bera ere ekintza horrekin ados dagoela.
Txaro Arceniegak galdetu du ea debekatuta dagoen Galeako pasealekutik bizikletan ibiltzea. Debekatuta daudela esan du, baina kontu hori airean dagoela.

Hala, planaren laugarren ildo estrategikoa onetsi da.

**5. IE: INGURUMEN-KALITATEA ETA BALIABIDEEN ERABILPEN JASANGARRIA**

5.1. programa: Klima aldaketaren aurkako borroka.
5.1.1. E: Klima aldaketaren aurkako udal plana sortzea.
5.2. programa: Uraren aurrezpena sustatzea.
5.2.1. E: Hornidura eta saneamendu sareak hobetzeko jarduketak.
5.2.2. E: Udalerrian ura aurreztea.
5.2.3. E: Herritarrek ura aurreztea sustatzea.
5.3. programa: Hondakinen kudeaketa iraunkorra.
5.3.1. E: Hondakinen murrizketa eta banaketa sustatzen jarraitzea.
5.3.2. E: Birziklatze sistema berria ezartzea, hobarien bidez.
5.3.3. E: Sentsibilizazio kanpainak ezartzea hondakinen kudeaketari dagokionez.
5.3.4. E: Autokonpostajearen sustapena.
5.4. programa: Udalerriko kalitate akustikoa.
5.4.1. E: Trafikoaren ondoriozko zarata emisioak kontrolatzea.
5.4.2. E: Tabernetako zarata emisioak kontrolatzea.
5.4.3. E: Zarataren mapa berrikustea.
5.5. programa: Energiaren eraginkortasuna hobetzea eta energia berriztagarriak bultzatzea.
5.5.1. E: Argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa hobetzea.
5.5.2. E: % 100ean iturri berriztagarrietatik sortutako energia berdea kontratatzen jarraitzea.
5.5.3. E: Udal-eraikinen energia-ziurtagiria hobetzea.
5.5.4. E: Udaleko ibilgailuak ibilgailu elektriko eta/edo gas bidezkoekin ordezkatzea, apurka-apurka.
5.5.5. E: Herritarren eraginkortasun energetikoa sustatzea.
5.5.6. E: Elektro-gasolindegiak jartzea.
5.6. programa: Kutsadura elektromagnetikoaren kontrola.
5.5.1. E: Ministerioko antenen inbentarioan kontrastea eta jarraipena egitea eta neurketa berriak egitea.

Trafikoaren zaratari dagokionez (5.4.1. ekintza), Javier Loidik esan du zarata egiteko trukatuak izan diren motorrak eta autoak egon badaudela oraindik. Josu Atekak erantzun du udaltzaingoak isunak jar ditzakeela, baina zarata igortzen duen ibilgailua gelditu eta dezibelioak neurtu behar dira horretarako.

señalización y debemos pensar también en redes y colaboración con los municipios colindantes. Por los senderos también transitan caballos y la regulación es cada vez más necesaria. Xabier Buenetxea está de acuerdo con una regulación con el peatón como prioridad y una señalización adecuada. Juanjo Quiñones también manifiesta su acuerdo con esta acción.

Txaro Arceniega pregunta a ver si en el paseo de la Galea están prohibidas las bicicletas. Se responde que están prohibidas, pero que está un poco en el aire.

Así, se aprueba la cuarta línea estratégica del plan.

**LE 5: CALIDAD AMBIENTAL Y UTILIZACIÓN SOSTENIBLE DE LOS RECURSOS**

Programa 5.1.: Lucha contra el cambio climático
A 5.1.1. Elaboración de un Plan Municipal de Lucha contra el cambio climático
Programa 5.2.: Promover el ahorro de agua
A 5.2.1. Actuaciones de mejora de las redes de abastecimiento y saneamiento
A 5.2.2. Ahorro de agua a nivel municipal
A 5.2.3. Incentivar el ahorro de agua por parte de la ciudadanía
Programa 5.3.: Gestión sostenible de los residuos.
A 5.3.1. Continuar promoviendo la reducción y separación de los residuos
A 5.3.2. Implantación de un nuevo sistema de reciclaje mediante bonificación
A 5.3.3. Puesta en marcha de campañas de sensibilización en torno a la gestión de residuos
A 5.3.4. Fomento del autocompostaje
Programa 5.4.: Calidad acústica del municipio.
A 5.4.1. Controlar las emisiones de ruido debidas al tráfico
A 5.4.2. Controlar las emisiones de ruido de los bares
A 5.4.3. Revisión del mapa de ruido
Programa 5.5.: Mejorar la eficiencia energética e impulsar las energías renovables.
A 5.5.1. Mejorar la eficiencia energética del Alumbrado Público
A 5.5.2. Continuar contratando energía verde 100% procedente de fuentes renovables
A 5.5.3. Mejorar la certificación energética de los edificios municipales
A 5.5.4. Sustituir poco a poco la flota de vehículos municipales por vehículos eléctricos y/o de gas
A 5.5.5. Fomentar la eficiencia energética por parte de la ciudadanía
A 5.5.6. Instalar electrolineras
Programa 5.6.: Control de la contaminación electromagnética.
A 5.5.1. Contraste y seguimiento del inventario de antenas del Ministerio y nuevas mediciones.

Con respecto al ruido del tráfico (acción 5.4.1.), Javier Loidi comenta que todavía hay motos y coches que han sido trucados para hacer ruido. Josu Ateka responde que la policía municipal puede multar pero tiene que parar al vehículo que emite el ruido y luego medir los decibelios.

Kutsadura elektromagnetikoari buruzko ekintzari dagokionez, jarduketak berrikustea komeni da, Ministerioak egindako lana ez errepikatzeko.

Foroaren zati batek bosgarren ildo estrategikoa onetsi du eta, beraz, onetsi egin da Tokiko Agenda 2030en Ekintza Plan osoa. Zuzenketak identifikatu ostean, plan hori Gobernu Batzarrari igorriko zaio, onetsi dezan.

**3.- Galde-eskeak**

Azkorri Bizirik kolektiboak egindako proposamen bat helarazi dio Xabier Buenetxeak Ingurumeneko Foroari. Talde horrek eskatu du Azkorriko zonaldea babes eta kontserbazio bereziko zona gisa jasotzea HAPOn.

Autobusek buelta eman ahal izateko duela gutxi jarri den biribilguneak alarma piztu du, eta ordutik Azkorri Bizirik elkartea lanean ari da ingurua babesteko eta landa-balioak mantentzeko.

Javier Loidi ados dago kontserbatzen saiatzearekin, ez urbanizatzearekin eta paisaia natural tradizionala zenaren zati bat mantentzearekin. Ez dago landa-jarduerarik baina saia gaitezke 1) Urbanizazio progresiboa geldiarazten 2) Lorategi ez bihurtzen.

Amaia Lauziricak jakin nahi du ea hiri-baratzak egiten saiatuko liratekeen. Xabier Buenetxeak ezetz erantzun du, larreak dauden moduan utzi nahi dira eta paisaia naturala mantendu. Andeka Zubiaurrek azaldu du baratzak jartzeko lursail bat alokatu daitekeela.

Amaitzeko, Xabier Buenetxeak esan du Azkorri Bizirik elkartearen ikuspuntua ezagutu nahi izatekotan, hurrengo bileran proposamen bat aurkez dezaten eskatu diezaiekegula. Foroko kideak ados agertu dira.

Celia Marañónek gaia aldatu du, eta aurten Getxoko teilatu ugaritan agertu diren kalatxorien habien inguruan galdetu du. Hain zuen ere, Josu Atekak azaldu du arazo horren berri izan dutela eta azterlan bat egin dela Areetan eta Romon, habien eta txiten inbentarioa egiteko. 26 teilatutan egin dira esku-hartzeak eta hamalau habia kendu dira. Azterlan horren baitan etorkizunerako gomendioak barne hartu dira, jabeen erkidegoei zuzendutakoak, kalatxoriak itzuli ez daitezen.

Juanjo Quiñonesek aukera aprobetxatu du galdetzeko ea Maidagango antzinako hesietan dagoen haurrentzako parkean arratoiak hiltzeko planik ote dagoen. Josu Atekak erantzun du eremu horretan landare askoko orube bat dagoela, obrak hasteke daudela bertan, eta sastraka horiekin arratoiak ugaltzen direla. Horiek kontrolatu eta harrapatzeko puntuak daude.

Azkenik, Joseba Arregik azaldu du 2015etik martxan dagoen Hondakinen Lantaldea urtarrilean bilduko dela ziurrenik, eta Foroko kide guztiak parte hartzera gonbidatuta daudela. Beste urte batzuetan, Foroko hiru kide hautatzen ziren taldeko kide izateko, baina orain ez da konpromisorik hartu beharko, deialdi bakoitzean

En cuanto a la acción relativa a la contaminación electromagnética, convendría revisar las actuaciones puesto que no deberíamos repetir el trabajo del Ministerio.

Se da por aprobada la línea estratégica 5 por parte del Foro y con esto todo el Plan de Acción de Agenda 2030 Local. Con las correcciones identificadas, este Plan será el que será llevado a la Junta de Gobierno para su aprobación.

**3.- Ruegos y preguntas.**

Xabier Buenetxea traslada al Foro de Medio Ambiente una propuesta del colectivo Azkorri Bizirik. El grupo quiere que se declare la zona de Azkorri como zona de especial protección y conservación en el nuevo PGOU.

La rotonda que recientemente se ha levantado para que los autobuses puedan dar la vuelta, ha dado la voz de alarma y Azkorri Bizirik está trabajando por la preservación de la zona y el mantenimiento de los valores rurales.

Javier Loidi está de acuerdo en tratar de conservar, no urbanizar y que se mantenga parte de lo que se recuerda del paisaje natural tradicional. No hay actividad rural pero sí que podemos intentar 1) Contener la urbanización progresiva 2) Que no se ajardine.

Amaia Lauzirica se interesa por saber si se trataría de hacer huerta urbana. Xabier Buenetxea responde que no, que se trata de dejar las campas como están y mantener el paisaje natural. Andeka Zubiaur explica que para las huertas, se puede alquilar un terreno.

Xabier Buenetxea termina diciendo que si queremos conocer la postura de Azkorri Bizirik, podemos pedirles que presenten su propuesta en la próxima reunión. Los miembros del Foro están de acuerdo en saber más.

Cambiando de tema, Celia Marañón pregunta por los nidos de gaviota que este año han aparecido en numerosos tejados de Getxo. Efectivamente, Josu Ateka explica que estaban al tanto de la problemática y que se ha realizado un estudio en Areeta y en Romo en el cual se han inventariado nidos y pollos. Se ha actuado en 26 tejados y se han quitado 14 nidos. El estudio incluye recomendaciones a futuro para las comunidades de vecinos para que no vuelvan las gaviotas.

Juanjo Quiñones aprovecha para preguntar a ver si hay un plan de desratización en el parque infantil en las antiguas barreras de Maidagan. Josu Ateka responde que en esta zona hay un solar con mucha vegetación que está a la espera de comenzar las obras y que con esa maleza proliferan las ratas. Hay puntos de control y captura.

Joseba Arregi finaliza explicando que el Grupo de Trabajo de Residuos que lleva en funcionamiento desde 2015 se reunirá probablemente en enero y que todos los miembros del Foro están invitados a participar. Otros años se seleccionaba a tres miembros del Foro para formar parte del Grupo, pero ahora ya

parte hartzeko gonbidapena Foroko kide guztiei helaraziko zaie eta ahal duten guztiek parte hartuko dute. Amaia Lauziricak baieztatu du Getxo Enpresak parte hartzeko interesa duela.

no hay que comprometerse desde ahora, la invitación se hará a todas las personas en cada convocatoria y participarán todas aquellas que puedan. Amaia Lauzirica confirma el interés de Getxo Enpresa por participar.

20:30 direnean, bilera amaitutzat jo da.

A las 20:30 horas se da por finalizada la reunión.